

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
13/2015	R6/2018	2018-6-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	Itsasontzi batean emandako zerbitzuengatik PFEZren atxikipenak zein tokian sartu behar diren

R6/2018 Ebazpena
13/2015 espedientea

Vitoria-Gasteizen, 2018ko ekainaren 28an

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado Ollero jauna batzordeburu eta Isaac Merino Jara jauna eta Javier Muguruza Arrese jauna batzordekide dituenak, honako hau

ERABAKI DU

Ogasunaren eta Administrazio Publikoen Ministerioko Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusiak eta Eusko Jaurlaritzaren Ogasuneko eta Finantza Politikako sailburuordeak igorritako 2014ko otsailaren 11ko idazki bidez –hilaren 19an iritsi zen idazkia– abiarazitako prozeduran; idazki horren bitartez, Arbitraje Batzorde honi jakinarazi zitzaion desadostasuna dagoela Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordean PPASM SLk aurkeztutako zerga-arloko kontsulta ebazteari dagokionez. Kontsulta Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, espedientezenbakia 13/2015 du eta Javier Muguruza Arrese jauna da txostengilea.

I. AURREKARIAK

1. Espedienteak honako aurrekari hauek ditu:

- PPASM SL helbide soziala eta fiskala Bizkaian dauzkan erakundea da. Bere helburu soziala da urpeko azterlan, miaketa, esplorazio eta ustiapenak egitea urpekaritza-lanen bitartez, itsasoan ekipoak instalatu eta konpontzea, flotatzen duten itsasontziak garbitu eta konpontzea, itsasoko konponketa- eta eraikuntza-lanak egitea, eta mota guztietako itsasontziak, eta industriako, ontzigintzako eta itsasoko ekipoak alokatzea. Erakunde horrek, 2010eko martxoaren 26an, kontsulta bat planteatu zion Bizkaiko Foru Aldundiari (BFA), kontsultagilearen jabetzako nahiz errentan hartutako ontzietan zerbitzuak eskaintzen dituzten langileen lanaren etekinen ziozko PFEZaren konturako atxikipenak zein administrazioan sartu behar diren zehazteari dagokionez. Bereziki, PPASM SLk zera kontsultatzen zuen: ea atxikipen horiek BFAn sartu behar ziren, atxikitzailearen helbide fiskalari dagokion administrazio eskuduna izateagatik, ala langileek alta eman behar duten Gizarte Segurantzaren Administrazioaren arabera dagokion Administrazioan, hau da, langileek lan egiten duten ontziari dagokion jatorri-portuko tokian egin behar den. Kontsulta honen kasuan, toki hori Murtzia da.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
13/2015	R6/2018	2018-6-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	Itsasontzi batean emandako zerbitzuengatik PFEZren atxikipenak zein tokian sartu behar diren

- Euskadiko Zerga Koordinazioko Organoak (EZKO) PPASM SLren kontsultari erantzuteko proposamena prestatu zuen. Kontsulta hartan ondorioztatu zuenez, itsas nabigazioko itsasontzietan emandako zerbitzuak, atxikipenen ondorioetarako, langileak atxikita dauden lantokiaren helbidean eman direla ulertu behar da, alegia, lanean ari diren itsasontziaren jatorri-portuaren helbidean.
- Erantzuteko proposamena Autonomia Erkidegoekiko eta Toki Erakundeekiko Finantza Koordinaziorako Zuzendaritza Nagusiari igorri zitzaion; zuzendaritza hark oharrak egin zituen, eta proposamen horrekin ados ez dagoela azaldu zuen. Zuzendaritza Nagusiak, idazki baten bidez (ez da ageri idazki horren data) erantzun zuenez, kontsultari erantzuteko, honako hau hartu behar da oinarri: Ekonomia Ituna nahiz Nafarroako Foru Komunitatearekiko hitzarmena arauak dira, eta horietan beren-beregi zehazten dira foru-lurraldeen eskumenak, eta beraz, Itunean edo Hitzarmenean esplizituki agertzen ez den guztia estatuaren eskumenekoa da. Horrekin bat eginez, Estatuko Administrazioaren ustez, kontsultari erantzuteko bereizi egin behar dira alde batetik lanak itsasoan soilik ematen dituzten langileak eta bestetik lanak itsasoan nahiz lehorrean egiten dituztenak. Lanak itsasoan soilik ematen dituzten langileei dagokienez, atxikipenak ez dira inoiz ere Euskal Autonomia Erkidegoarenak izango; izan ere, lurralde-itsasoa eta nazioarteko urak ez dira lurralde historikoetan sartzen, eta kasu horretan eskumena Estatuari esleitu behar zaio. Lanak itsasoan (Estatuaren eskumena) nahiz lehorrean (Estatuaren edo dagokion foru-aldundiaren eskumena) egiten dituztenei dagokienez, kontuan hartu beharko da zein lantokiri dauden atxikita, eta atxikipenak irizpide horren arabera sartu beharko dira, eta beraz, bidezkoa da itsasontzia lantokitzat jotzea eta lantoki hori jatorri-portuan kokatzea.

2. Arbitraje Batzordeak gatazka tramiterako onartu zuen 2015eko abenduaren 2ko bileran.

3. 2015eko abenduaren 4an, Arbitraje Batzordeko presidentek idazkiak bidali zizkien Ogasunaren eta Administrazio Publikoen Ministerioaren Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusiari, Eusko Jaurlaritzaren Ogasuneko eta Finantza Politikako sailburuordeari, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiei eta Zerga Administrazioaren Estatu Agentziaren Euskadiko Ordezkaritzari. Bertan, gatazkaren onarpena jakinarazten zien, Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 16. artikuluko 4. atalean ezarritakoaren arabera, Administrazio interesdunek egokitzen jotako alegazioak aurkezteko, hilabeteko epean. Eskaintza bera egin zitzaion PPASM

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
13/2015	R6/2018	2018-6-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	Itsasontzi batean emandako zerbitzuengatiko PFEZren atxikipenak zein tokian sartu behar diren

SLri Arbitraje Batzordeko presidentek 2015eko abenduaren 17an igorritako idazki bidez.

4. Bizkaiko Foru Aldundiak (BFA) alegazioak aurkeztu zituen 2016ko urtarrilaren 14ko idazki baten bidez (egun horretan bertan erregistratu zen). Idazki horretan Euskadiko Zerga Koordinazioko Organoaren tesia sakonago jorratzen du, eta gatazka ebatz dadila eskatzen du, zera ondorioztatuta: «Lurralde-itsasoan eta nazioarteko uretan emandako zerbitzuei dagozkien lanaren etekinen konturako atxikipenak ez zaizkio inola esleitu behar Estatuko Administrazio Orokorrari; aitzitik, lantokiaren - itsasontziaren jatorri-portuaren irizpidea aplikatu behar da, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean xedatuta dagoenaren arabera».

BFAren ustez, Ekonomia Itunak ez du arau espezifikorik xedatzen itsas nabigazioko ontzietan emandako zerbitzuen kasuetarako, bereizi gabe lurralde-itsasoan emandakoak eta nazioarteko uretan emandakoak. Beraz, erregulazio orokorra aplikatu behar da; hain zuzen ere, erregulazio horrek aurreikusten duenez, kasu horietan, ulertu behar da zerbitzuak, atxikipenei dagokienez, langileak atxikita dauden lantokiaren helbidean eman direla. Hau da, lanean ari diren itsasontziaren jatorri-portuaren helbidean eman direla ulertu behar da, Langileen Estatutuaren 1.5 artikuluan xedatuta dagoenaren arabera.

BFAk dioenez, Estatuko Administrazio Orokorrak ezarritako irizpidea, hau da, nazioarteko uretan emandako zerbitzuei dagozkien atxikipenentarako eskumena beretzat gordetzea, nazioarteko urak lurralde erkide direla ulertzearen parekoa da; izan ere, argi dagoenez, Ekonomia Itunean, lotura-puntua ezartzeko, Euskal Autonomia Erkidegoa/lurralde erkidea dikotomia kontuan hartzen da, eta ez da kontuan hartzen Estatuko Administrazio Orokorraren interpretaziotik, antza denez, ondorioztatzen den dikotomia. Hain zuzen ere, interpretazio hori Euskal Autonomia Erkidegoa/munduko gainerako herrialdeak azterketa batean oinarrituko litzateke, eta hori ez dator bat Ekonomia Itunaren sistematikarekin, ezta itunaren koherentziarekin ere.

Auzitegi Gorenaren 1998ko azaroaren 14ko epaia dakar ahotara (6730/1998). Dioenez, Ekonomia Itunaren 7. artikuluan oinarritzen da, baina gatazka hau planteatzean indarrean ez zegoen idazkerarekin; dena dela, Auzitegi Gorenak orduan atera zituen ondorioak gatazka honetan sortzen den egoerari aplikatu ahal zaizkio. BFAk dioenez, Auzitegi Gorenak, epai hartan, onartu egin zuen nazioarteko urak ez direla lurralde erkidea Ekonomia Itunaren ondorioentarako, ur horien gaineko eskumena ezin zaiolako Estatuko Administrazioari esleitu, esanbidezko aipamenik egon ezean. Eta horrenbestez, onartu egin zuen bazegoela Ekonomia Itunean beren-beregi arautu gabeko kasu bat, interpretazioaren zentzuzko arau batzuekin aztertu behar zena. Eta hau ere onartu zuen: auzia ebazteko, subsidiarioki, oinarri hartu zuen ordaintzaileen eta hartzaileen helbidea, sasoi hartan hori baitzen obligazio nagusiaren (PFEZ) irizpide eraentzailea, eta konponbide hori gatazka honetan sortutako egoerari aplikatu ahal zaio 7. artikuluan idazkera berriarekin. 7. artikulua horrek oraindik ere eskumenak

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
13/2015	R6/2018	2018-6-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	Itsasontzi batean emandako zerbitzuengatiko PFEZren atxikipenak zein tokian sartu behar diren

beren-beregi esleitzen ditu soilik lurralde batzuetan eta besteetan –lurralde erkidea eta foru-lurraldea– emandako zerbitzuetarako, eta ez ditu aipatzen nazioarteko uretan egiten diren lanak, baina berariazko arau orokor bat barnean hartzen du, lana lurralde bietan egiten den kasuetarako, hau da, lehenengo araua –egindako lana modu eskusiboan esleitzeko lurralderik ez dagoela ezartzen duen arau– indargabetuta geratzen denerako. Bada, arau hori lantokiaren araua da, eta hori ez zen agertzen 1981eko Ekonomia Itunean.

BFAren ustez, arau-arloko hutsunea betetzeko, atzerrian kokatu beharreko zerbitzu-emateak lurralde erkidean egin direla ulertzea Arbitraje Batzordeak eta jurisprudentziak lurralde erkidearen kontzeptuari zer nolako irismena eman dioten ez jakitea da. Aipatzen ditu IBERDROLA DISTRIBUCIÓN ELÉCTRICA SA erakundearen 2001etik 2009ra bitarteko tributazioari buruzko auziak, horietan eztabaidatu baitzen gai hori. Gogora ekartzen duenez, Arbitraje Batzordeak nahiz Auzitegi Gorenak, gatazka horretan emandako lau epaitan (2014ko azaroaren 14an eta 17an) hau ezarri zuten: lurralde erkidea Euskal Autonomia Erkidegoa ez den Espainiako Estatuaren lurraldea da (gure ustez, Auzitegi Gorenaren honako epai hauek dira: 4575/2014 epaia, 2014-11-14, 257/13 errekurtsua; 4576/2014 epaia, 2014-11-14koa, 347/13 errekurtsua; 5183/2014, 2014-11-17koa, 273/13 errekurtsua; eta 5157/2014 epaia, 2014-11-17koa, 832/13 errekurtsua). BFAren ustez, Estatuko Administrazio Orokorraren interpretazioa ez da jurisprudentzia horren araberakoa; izan ere, Auzitegi Gorenak, epai hartan, ez zuen ezarri lurralde erkidea munduan Euskal Autonomia Erkidegoa ez den guztia denik, baizik eta Euskal Autonomia Erkidegoa ez den Espainiako lurraldearen zatia soilik.

Argudio horiek azaldu ostean, BFAk, modu subsidiarioan, azaltzen du ez dagoela ados Estatuko Administrazio Orokorraren irizpidearekin. Irizpide hori da Bizkaiko Lurralde Historikoaren mugakide den lurralde-itsasoaren gaineko zerga-eskumenak soil-soilik Estatuko Administrazio Orokorrarenak direla, BFAren eskumena baztertuta, eta horretarako oinarria da lurralde-itsasoa itsasoko eta lehorreko jabari publikoa dela eta aldi berean lurralde-itsasoa ez dagokiola autonomia-erkidego baten lurraldeari.

Itsasoa estatuaren jabari publiko gisa katalogatuta dagoela garrantzi gabekotzat jotzen du, Estatuko Administrazioak itsaso horren gainean zerga-arloko eskumen eskusiboa daukala erabakitzeko, egitate hori oinarritzat hartzeari dagokionez. BFAk ez du auzitan jartzen lurralde-itsasoa Estatuari dagokiola, herri jabariko ondasun den aldetik, baina dioenez, horrek ez du esan nahi lurralde-eremu horren gainean foru-lurraldeek euren eskubide historikoen babes eta errespetutik sortzen diren eskumenak baliatu ezin dituztenik. Bere tesia babesteko aipatzen ditu Konstituzio Auzitegiaren 77/1984 epaia, uztailaren 3koa, eta 46/2007 epaia, martxoaren 1koa.

Halaber, aipatzen du Konstituzio Auzitegiaren otsailaren 14ko 38/2002 epaia. Epai horretan ezarri zenez, «lurralde-itsasoan, salbuespenez, autonomia-eskumenak

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
13/2015	R6/2018	2018-6-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	Itsasontzi batean emandako zerbitzuengatikoko PFEZren atxikipenak zein tokian sartu behar diren

baliatu ahal dira; gorabehera hori estatutu-aintzatespen baten mende egongo da (...), edo bestela eskumen-izaeraren mende, hala ondorioztatzen baita konstituzionaltasun-blokearen interpretaziotik (akuikultura: Konstituzio Auzitegiaren 103/1989 epaia, ekainaren 8koa; arrantza-sektorearen antolamendua: Konstituzio Auzitegiaren 158/1986 epaia, abenduaren 11koa; itsaski-bilketa: Konstituzio Auzitegiaren 9/2001 epaia, urtarrilaren 18koa)». Horren haritik, BFAk dioenez, estatutuetan ez denez esanbidez onartzen lurralde historikoek euren zerga-eskumenak euskal kostaldearen mugakide den lurralde-itsasoan baliatu ahal dituztenik, eta horri buruz debekurik ere ez dagoenez, lurralde historikoen zerga-eskumenen izaera oinarri hartuta –Konstituzioak babestutako eta errespetatutako eskubide historikoetan oinarritutako eskumenak–, ulertzekoa da, zerga ondorioetarako, euskal kostaldeari dagokion lurralde-itsasoa lurralde historikoen zati izatea, eta ez lurralde erkidearen zati.

Dioenez, halaber, diru-sarreraren eta gastuen arteko koherentziaren printzipioaren argitan, zergei lotuta egotea lurraldeen araberako auzia denez, ez litzateke koherentea izango Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeek gastu-eskumenak aintzat hartu behar izatea beren zerga-sistema aplikatu behar ez den lurralde batean (bertan, zerga itunduengatikoko diru-sarrerak oso-osorik Estatuko Administrazioari dagozkio, eta autonomia-erkidegoko erakunde horiek konpentsaziorik eskatzeko aukerarik ez dute).

Azkenik, BFAk bere uzia aldezteko, bere egiten du Ekonomia eta Ogasun Ministerioiko Zergen Zuzendaritza Nagusiaren doktrina, 2010eko azaroaren 16ko V2465-10 kontsulta loteslean adierazitakoa. Kontsulta hori Zenbait hidrokarburoren txikizkako salmentaren gaineko zerga arautzeko eta biltzeko eskumenari buruzkoa da, zerga-egitatea Valentziako Erkidegoaren mugakidea den lurralde-itsasoan eraikitako itsas plataforma bati loturiko kasu batean.

Kontsulta hartan, Zergen Zuzendaritza Nagusiak, Espainiako Erresumaren subiranotasuna lurralde-itsasoraino hedatzen dela gogora ekarri ondoren, hau esan zuen: «Bestalde, Valentziako Erkidegoaren Autonomia Estatutuaren uztailaren 1eko 5/1982 Lege Organikoaren 2. artikulua, gainerako autonomia-estatutuek bezalaxe, autonomia-erkidegoaren lurraldea honela definitzen du: “Valentziako Erkidegoaren lurraldean Alacant, Castelló eta Valentziako probintzietan dauden udalerririk sartzen dira”. Gainera, lurralde horri lotuta dago Valentziako Erkidegoko udalerririk dagokien lurralde-itsasoa, zeinaren gainean erkidegoak bere zerga-eskumena baliatzen duen. Beraz, Zuzendaritza Zentro honen ustez, bezero bati gasolioa saltzeko edo entregatzeko, erregaia Espainiako lurraldean dagoen zerga-gordailu batetik lurralde-itsasoan dagoen itsas plataforma batera eraman behar bada –bezeroak bertan baitaizka gasolioa jasotzeko eta kontsumitzeko instalazioak–, Zenbait hidrokarburoren txikizkako salmentaren gaineko zerga ordaindu behar da. Zerga-egitatea itsas plataforman egiten da, eta lurralde-itsasoaren zati horren gaineko zerga-eskumenak baliatzen dituen autonomia-erkidegoari dagokion tasa –halakorik onartuz gero– aplikatzen da».

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
13/2015	R6/2018	2018-6-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	Itsasontzi batean emandako zerbitzuengatiko PFEZren atxikipenak zein tokian sartu behar diren

BFAk dioenez, ez da koherentea Estatuko Administrazioak uste izatea araubide erkideko kostaldeko autonomia-erkidegoen mugakide den lurralde-itsasoa haien lurraldeari lotuta dagoela eta, hala, bere zerga-eskumenak itsas eremu hori barne hartzen duela, eta, aldi berean, euskal kostaldeari dagokion lurralde-itsasoa lurralde historikoen zatitza ez hartzea, eta, beraz, Espainiako Konstituzioan zuzenean onartzen eta babesten diren zerga-eskumenetatik kanpo uztea.

5. Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioaren Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusiak alegazioak aurkeztu zituen 2016ko urtarrilaren 14ko data duen idazki bidez; sarrera-erregistroa hilaren 16an egin zen.

Idazkaritza Nagusiaren ustez, Itunak ez du esplizituki arautzen PFEZaren konturako atxikipenak ordainarazteko eskumena, lurralde-itsasoan egindako lanen kasurako; aitzitik, orokorrean, lanak lurralde horretan egiten direnean lanaren etekinak Euskal Autonomia Erkidegoan sartu beharko direla ezartzen du, besterik ez.

Bere iritziz, beraz, eskumen horren titulartasuna ezartzeko zehaztu behar da ea Euskal Autonomia Erkidegoko kostaldearen mugakide den lurralde-itsasoa autonomia-erkidego horren zati den ala estatuaren lurraldean dagoen.

Estatuaren lurraldearen zati dela uste du, arrazoi honengatik: Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 2.2 artikulua (3/1979 Lege Organikoa) ezartzen duenez, «Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoez, gaur egungo probintzien muga berberetan, osatuko dute Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren lurraldea», baina une batean ere ez da itsas eremua aipatzen.

Era berean, Konstituzio Auzitegiaren otsailaren 14ko 38/2002 epaia hizpidera ekartzen du, autonomia-erkidegoen eskumenen lurraldearen arabeko sailkapena dela-eta; dioenez, lurralde-itsasoa ez da Euskal Autonomia Erkidegoaren zati, baizik eta estatuaren lurraldearen zati; beraz, autonomia-erkidegoen eskumenen lurraldearen arabeko sailkapena kontuan hartuta, eskumen horiek ezin dira itsasoan baliatu. Auzitegiak onartzen du autonomia-erkidegoen eskumen jakin batzuk, salbuespenez, lurralde-itsasoan baliatu ahal direla, dela estatuak esplizituki onartzen duelako, dela eskumenaren beraren izaerarengatik; dena dela, dioenez, horretan ez da sartzen ontzi batean zerbitzuak ematen dituzten langileen PFEZaren konturako atxikipenak ordainarazteko eskumena.

Salbuespen horien artean lehenengoari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak eta Itunak ez dutelako aurreikusten foru-aldundiek euren lurralde historikoen zerga-araubidearen barruko eskumenak lurralde-itsasoan baliatu ahal dituztenik, eta zehazki, lanaren etekinengatiko atxikipenen eta kontura egindako sarreraren gaineko eskumenez ari gara.

Salbuespenen artean bigarrenari dagokionez, nahiz eta Konstituzio Auzitegiak esan duen salbuespenez onar daitekeela autonomia-erkidegoaren eskumenak

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
13/2015	R6/2018	2018-6-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	Itsasontzi batean emandako zerbitzuengatik PFEZren atxikipenak zein tokian sartu behar diren

erkidegoaren lurraldetik kanpo baliatzea –dena delako eskumenaren izaerak hala eskatzen duenean, baldin eta hedadura horrek gatazka sortzen ez badu Estatuaren eskumenekin–, argi dago, Estatu Administrazioaren iritziz, Euskal Autonomia Erkidegoko foru-aldundien zerga-eskumenak behar bezala baliatzeko, ez dela beharrezkoa lurralde erkidean ere baliatzea, zeinaren barruan lurralde-itsasoa baitago. Eta gainera, estatuak eta autonomia-erkidegoek lanaren etekinengatik atxikipenen eta konturako diru-sarreraren arloan dauzkaten eskumenak xede juridiko berberari buruzkoak direlako; beraz, zerga-botereek eskumen horiek ezin dituzte baliatu espazio fisiko berberean, hau da, lurralde-itsasoan.

Bere argudioetan oinarrituta, Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusiak zera ondorioztatzen du: lurralde-itsasoa lurralde erkidearen zati denez, zerga-arloko eskumenak Estatuari soilik dagozkio, ez dagoelako kontrakoaren onarpenik estatutuan, ezta Ekonomia Itunean ere. Horrenbestez, erakunde kontsultagileak Estatu Administrazioan sartu beharko ditu lana lurralde-itsasoan egiten duten langileen atxikipenak.

6. Arabako Foru Aldundiak alegazioak egin zituen 2015eko abenduaren 29ko idazkiaren bidez (sarrera-erregistroa hurrengo egunekoa da), eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, berriz, 2016ko urtarrilaren 11ko idazkiaren bidez (horren sarrera ere hurrengo egunean erregistratu zen). Bi kasuetan, Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoak egindako proposamena berresten dute, besterik gabe. PPASM SLk ez zuen alegaziorik egin.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Gatazka hau sustatu da Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordean sortu den desadostasun batengatik, Kontzertu Ekonomikoaren 64.b) artikuluan aurreikusitako kontsultak ebazteko adiskidetasunezko prozeduraren barruan. Desadostasuna erantzun bati buruzkoa da; hain zuzen ere, PPASM SLk Bizkaiko Foru Aldundian aurkeztutako kontsultari emandako erantzunari buruzkoa, eta kontsultaren bitartez, jatorri-portua Murtzian daukan ontzi batean diharduten langileei lan-etekinengatik egindako atxikipenak eta konturako diru-sarrerak zer Zerga Administrazioan aurkeztu behar zituen jakin nahi zuen: ZAEAn ala zegokion foru-aldundian.

Desadostasunaren xedea ezartze aldera, nabarmendu behar da, lehenengoz, Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoak eta Autonomia Erkidegoekiko eta Toki Erakundeekiko Finantza Koordinaziorako Idazkaritza Nagusiak ateratzen dituzten ondorioak, PPASM SLk egindako kontsultaren xedeari dagokionez, ez direla aurkakoak.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
13/2015	R6/2018	2018-6-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	Itsasontzi batean emandako zerbitzuengatik PFEZren atxikipenak zein tokian sartu behar diren

Kontsultak aurrekarietan dioenez, «langile batzuei buruzkoa da, zeinetarik batzuek zerbitzuak ontzi batean emango baitituzte», eta geroago dioenez, «lana egingo duten ontzia» Murtziako portuari atxikita dago.

Gauzak horrela, Euskadiko Zerga Koordinazioko Organoa eta Finantza Koordinaziorako Idazkaritza bat datoz, euren ondorioak kontuan hartuta: langile horien PFEZarengatik atxikipenak ZAEAn sartu behar dira. Euskadiko Zerga Koordinazioko Organoaren iritziz, ontzia eta, horrenbestez langileak atxikita dauden portua lurralde erkidean dagoelako, eta Koordinaziorako Idazkaritza Nagusiaren iritziz, atxikipen horiek betiere ZAEari dagozkiolako. Beraz, aurkakotasunen ardatza argudioak dira, baina ez kontsultagileari interesatzen zaion erantzuna.

Hala ere, horretan oinarrituta gatazka abstraktua dela irudi dezakeen arren, ez da hala. Kontsulta honen kasuan ondorio berbera ateratzea kasualitate hutsa da, eta horrek ez ditu ezkututzen Administrazioen artean dauden desadostasun biziak. Gainera, desadostasun horiek, alegazioak kontuan hartuta ageri-agerikoak diren desadostasunak, honen ezaugarri berekoak diren hainbat gatazkatara hedatzen dira. Euskal Autonomia Erkidegoko portu bati atxikitako ontzietan zerbitzuak ematen dituzten langileen PFEZarengatik atxikipenak sartzeko eskatu dizkieten zergapekoei ZAEAk egindako likidazioengatik planteatu ziren gatazka horiek, Bizkaiko Foru Aldundiak likidazio horiei buruz bere ordainarazpen-eskumena aldarrikatzen baitu. Gatazka horietan, bada, eztabaidaren nondik norakoak gatazka honetan azaldutakoekin berdinak dira. Gatazka hau ebaztea beharrezkoa da, Arbitraje Batzordeak ebatzi behar dituen gatazka horiek aztertzeko bidea emango duten oinarriak ezarriko badira.

2. Arbitraje Batzorde honek PPASM SLk egindako kontsultaren ondorioz Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordearen barnean sortutako gatazka konpontzeko eskumena du; izan ere, 2014ko otsailaren 11n izan genuen gatazka horren berri, idazki bitartez.

3. Ekonomia Itunaren 7.Bat a) artikulua, gatazka hau planteatu zen unean indarrean zegoen idazkeran, honako hau xedatzen du, lanaren etekinak direla-eta egindako atxikipenak ordainarazteari dagokionez:

«Bat. Lanaren etekinen ziozko atxikipenak eta konturako sarrerak, honako kasu hauetan, lurraldea dela-eta eskumena daukan foru-aldundiak eskatuko ditu, bere arautegiari eutsiz:

a) Euskadin egindako lan edo zerbitzuetatik datozen etekinak.

Lanak edota zerbitzuak lurralde erkidean eta Euskadiko lurraldean egiten direnean, arauak edo zerbitzuak Euskadin egiten direla uste izango da, aurkako frogarik ezean, baldin eta langilearen lantokia lurralde horretan badago».

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
13/2015	R6/2018	2018-6-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	Itsasontzi batean emandako zerbitzuengatik PFEZren atxikipenak zein tokian sartu behar diren

Gatazka hau planteatu ostean, 7.Bat.a) artikuluko horren idazkera aldatu egin du abenduaren 28ko 10/2017 Legearen, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legea aldatzen duenaren artikuluko bakarrak (BOE, abenduaren 29koa), eraginak 2017ko abenduaren 30etik aurrera sortu behar direla; horrenbestez, honela geratzen da idatzita:

«Bat. Lanaren etekinen ziozko atxikipenak eta konturako sarrerak, honako kasu hauetan, lurraldea dela-eta eskumena daukan foru-aldundiak eskatuko ditu, bere arautegiari eutsiz:

a) Euskadin egindako lan edo zerbitzuetatik datozen etekinak.

Lanak edo zerbitzuak lurralde erkidean eta Euskadiko lurraldean egiten direnean, edo zer tokitan egin diren zehazterik ez dagoenean, uste izango da langilea adskribatuta dagoen lantokia kokatzen den lurraldean egin direla.

Halaber, telelanaren kasuan ere, eta lanak edo zerbitzuak atzerrian egiten direnean, edo ontzi handietan, itsasontzi txikietan, itsas artefaktuetan edo itsasoko plataforma finkoetan, uste izango da langilea atxikita dagoen lantokia kokatzen den lurraldean egin direla».

Gauzak horrela, gatazkaren ardatza 2017ko abenduaren 30a baino lehen sortutako atxikipenak dira; izan ere, data horren ostean sortutakoetarako, Ekonomia Itunak beren-beregi lotura-puntu bat aurreikusten du ordainarazpen-eskumena zehazteko, hau da, langilea atxikita dagoen lantokia; zerbitzua ontzi baten barruan ematen duten langileen kasuan, Estatuko Administrazioak zein Euskadiko Zerga Koordinazioko Organoak eztabaidarik gabe onartzen dute lantoki hori, hasiera batean, ontzia atxikita dagoen portuan egon behar dela.

4. PPASM SL-K PLANTEATUTAKO KONTSULTARI DAGOKIONEZ ESTATUKO ADMINISTRATIOAK EUSKADIKO ZERGA KOORDINAZIOKO ORGANOAREN ERANTZUN-PROPOSAMENAREN AURKA EGINDAKO OHARRAK idatzian, Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoak idatzitako kontsultaren ebazpen-proposamenari emandako erantzuna den eta Autonomia Erkidegoekiko eta Toki Erakundeekiko Finantza Koordinaziorako Idazkaritza Nagusiaren menbretearekin eta sinadurarik eta datarik gabe igorri zen horretan (espedientearen «Gatazkaren Planteamendua» piezan agertzen da), Estatuko Administrazioak dioenez, itsasoa, dela «lurralde-itsasoa» dela «nazioarteko urak», ez da lurralde historikoen zati, eta dioenez, horrenbestez, itsasontzi baten barruan egindako lanei dagokienez, PFEZaren konturako atxikipenak ordainarazteko eskumena Estatuari esleitu behar zaio.

Hala ere, Autonomia Erkidegoekiko eta Toki Erakundeekiko Finantza Koordinaziorako Idazkaritza Nagusiak sinatutako 2016ko urtarrilaren 14ko alegazio-idatzian, espedientea agerian jarri ondoren aurkeztu den horretan, Estatuko Administrazioak bere argudioetan «lurralde-itsasoa» soilik aipatzen du, eta honela dio

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
13/2015	R6/2018	2018-6-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	Itsasontzi batean emandako zerbitzuengatiko PFEZren atxikipenak zein tokian sartu behar diren

ondorio gisa: «Horrenbestez, erakunde kontsultagileak Estatuko Administrazioan sartu beharko ditu lana lurralde-itsasoan egiten duten langileen atxikipenak».

Estatuko Administrazioak alegazio-idazki horretan ez du ezer ere ondorioztatzen lanak nazioarteko uretan egiten dituzten langileen atxikipenei buruz.

Gatazkaren jatorri den kontsultaren nondik norakoak ez zirenez inola ere Espainiako lurralde-itsasoan nabigatzen duen itsasontzi batean egindako lanen atxikipenak, hau ulertu behar dugu: gatazka lurralde-itsaso horretan nabigatzen diren itsasontzietan egindako lanei nahiz nazioarteko uretan nabigatzen dutenetan egindakoei dagokie, eta Estatuko Administrazioaren ondorioa bigarren kasu horri hedatu ahal zaio, «Oharrak» azaltzeko lehen idazki hartan planteatu zuen modu berberean.

5. Auzitegi Gorenak, 1998ko azaroaren 14ko 6730/1998 epaian (3053/92 errekurtsioa) aztertu zuen zein Administrazio zen eskuduna –estatukoa ala Bizkaiko foru-administrazioa– nazioarteko zeharkaldiak egiten dituzten ontzien tripulazioetako langileen, helbidea Bizkaian zeukan ontzi-konpainia bateko langileen PFEZaren konturako atxikipenak ordainarazteko.

Epaiaren jatorria ez zen Arbitraje Batzordeak ebatzitako gatazka bat, sasoi hartan Batzordea ez baitzegoen eratuta; aitzitik, jatorria erakunde atxikitzaile batek lanaren etekinen gaineko atxikipenengatiko likidazio batzuen aurka jarritako errekurtsioa zen, BFAk likidazio horiek erreklamatzeko baitzizkion, atxikipen horiek ZAEAn sartu ziren arren. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak ondorioztatu zuenez, zuzenak ziren BFAk egindako likidazioak, bera baitzen ordainarazteko Administrazio eskuduna, eta ez ZAEA.

Auzitegi Gorenak, lehen auzialdiko epaiaren aurka jarritako apelazio-errekurtsioa ebatziz, orduan indarrean zegoen Ekonomia Itunaren idazkera aldarrikatu zuen, PFEZaren eta zerga horren konturako atxikipenen ordainarazpenari buruz, eta ondorio gisa, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren irizpidea berretsiz, eskumena BFARI zegokiola esan zuen:

«Legeak berak (Ekonomia Ituna), pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari dagokionez, honako araubide hau ezartzen du:

1.- Lurraldearen arabera, eskumena daukan foru-aldundiari dagokio zerga hori, baldin eta subjektu pasiboaren ohiko bizilekua Euskadin badago (7.1 artikulua). Pertsona fisiko bat Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean bizi dela ulertuko da egutegiko urtean 183 egun baino gehiago egiten baditu (7.2 artikulua).

2.- Estatuko Administrazioak eskatuko du, Espainiako lurraldean bizi ez diren pertsonak Euskal Autonomia Erkidegoan lortutako etekinak edo ondare gehikuntzak direnean (9.1 artikulua).

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
13/2015	R6/2018	2018-6-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	Itsasontzi batean emandako zerbitzuengatik PFEZren atxikipenak zein tokian sartu behar diren

Era berean, iturrian egindako atxikipenak eskatzeko honako arau hauei jarraituko zaie:

1.- Eskumena duen foru-aldundiak eskatuko ditu kasu jakin batzuetan, eta horien artean nabarmentzekoa da 10. artikuluko 1. arauarena. Arau hori, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren lan edo zerbitzuetatik datozen etekinei eta lurralde erkidean sei hilabete baino gutxiagoan egindako aldian aldiko lanetatik datozenei buruzkoa da, betiere etekin horiek eragiketak lurralde erkidean egiten ez dituzten enpresa edo erakundeek ordaintzen badituzte.

2- Estatuko Administrazioak eskatuko ditu, etekinen izaera edozein dela ere, ohiko bizilekua Espainiako lurraldean duten pertsonak direnean (13. artikulua).

HIRUGARRENA.- Subjektu pasiboak ohiko bizilekua euskal lurraldean izatearen irizpidea, edo lotura-puntua, beraz, erabakigarria da eskumena erabakitzeko; bide batez, ohiko bizilekua EAE izango dute urtean 183 egunean baino gehiagoan Euskal Autonomia Erkidegoan bizi direnek. Beste kasu batean, Espainiako herritarrak izanik, kontuan hartu beharko litzateke etekinen izaera; izan ere, 13. artikuluan zerrendatu diren guztiak –orokorrean, euskal lurraldean sortzen direnak–, foru-aldundien eskumenekoak dira, eztabaidarik gabe, Itunaren Legeak hala aurreikusten baitu.

Ez dira horien artean agertzen nazioarteko uretan kanpainak egiten dituzten itsasontzietako tripulazioek jasotzen dituztenak, eta hain zuzen ere horregatik da hain zaila kasu hau, Estatuko Administrazioari esleitzen ez zaiona; azken horri aipatzen du Itunaren Legeak, ikusi dugunez, ohiko bizilekua Espainian ez duten pertsonak direnean bakarrik eta 12. artikuluko a) eta b) letren barruan ez dauden lanak direnean, eta hori ere ez da hizpide dugun kasua; gainera, beste zailtasun bat sortzen da, aztergai den eta aurreikusi ez den lanaren izaerarengatik.

Apelaturako epaiak 1981eko abuztuaren 3ko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren 152.1 artikulua aldarrikatzen du; horren arabera, aitortzen da «Ogasuneko Ordezkaritzan aurkeztu beharko da, edo bestela, atxikitzailearen helbide fiskalari dagokion Ogasun Administrazioan».

Kontuan hartzekoa da manu hori, eta kontuan hartzekoa, halaber, langileek bizilekua Espainiako beste leku batzuetan zutenik frogatu ez izana –hori erakunde apelatzaileari egotzi ahal zaio–, hala izan balitz, Estatuko Administrazioa eskuduna izango litzateke; eta horrez gain, Itunaren Legeak onartzen du Foru Aldundiari dagokiola zergaren kudeaketa; hori guztia dela-eta, apelaturako epaiaren irizpidea zuzendu behar da, eta auzia foru-administrazioaren alde erabaki».

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
13/2015	R6/2018	2018-6-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	Itsasontzi batean emandako zerbitzuengatiko PFEZren atxikipenak zein tokian sartu behar diren

Epaia emateko, lanaren etekinengatiko PFEZaren konturako atxikipenak ordainarazteko lotura-puntuak orain indarrean dagoen Ekonomia Itunaren idazkeraz guztiz bestelako modu batean arautzen zituen araudi bat –maiatzaren 13ko 12/1981 Legeak onartutako Ekonomia Itunaren Legearen idazkera– interpretatu zen; dena dela, Auzitegi Gorenaren arrazoibidea lagungarri zaigu Estatuko Administrazio Orokorraren uziari erantzuteko (itsasontzi batean egindako lanei dagozkien PFEZaren konturako atxikipenak betiere berari ote dagozkion); izan ere, gatazka planteatu zenean indarrean zegoen Ekonomia Itunaren idazkeran ez zen aurreikusten halakoak foru-aldundiei esleitzea.

Hain zuzen ere, Ekonomia Itunaren 10. artikuluko Lehenengo Arauak, orduan indarrean zegoen idazkeran, aurreikuspen hau jasotzen zuen: iturrian egindako atxikipenak, lanaren etekinenak, alegia, lurraldea dela-eta eskuduna den foru-aldundiari soilik zegozkion, etekin hauek zirenean: «Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren lan edo zerbitzuetatik datozen etekinak eta lurralde erkidean sei hilabete baino gutxiagoan egindako aldiak aldiko lanetatik datozenak, betiere etekin horiek eragiketak lurralde erkidean egiten ez dituzten enpresa edo erakundeek ordaintzen badituzte».

Auzi hartan eztabaidagai ziren atxikipenak «itsas zabalean urtean sei hilabete baino gehiagoan baina ez modu jarraituan dauden» langileei (tripulatzailleak) zegozkien, eta haien ordainsariak Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako enpresa batek ordaintzen zituen; beraz, bazter geratzen zen eragiketak Euskal Autonomia Erkidegoan egiten ez dituzten enpresek edo erakundeek ordaintzen dituzten eta sei hilabetetik beherako iraupena duten aldiak aldiko lanen kasua; hori hala izanik, Auzitegi Gorenak bat egin izan balu Ekonomia Ituna nahiz Nafarroako Foru Komunitatearen Hitzarmena foru-lurraldeen eskumenak beren-beregi zehazten dituzten arauak diren ideiarekin, eta, beraz, Itunean edo Hitzarmenean agertzen ez den guztia estatuaren eskumenekoa den tesianekin, Estatuko Administrazio Okorrrak aldezen duen legez, orduan errotik baztertuko zukeen atxikipenak Foru Aldundiari dagozkiola, ez lirakeelako izango «Euskal Autonomia Erkidegoan ematen diren lan edo zerbitzuen etekinak».

Eta errotik ez baztertzeaz gain, beste bide dialektiko bat hartuta ondorioztatu zuen hain zuzen ere BFari zegozkiola. Eta gainera, esplizituki onartu zuen itsasoan egindako lanengatiko atxikipenak ordainarazteko eskumena ez zitzaiela esleitzen ez Estatuko Administrazioari ez foru-administrazioei Ekonomia Itunean.

Beraz, epaiak inplizituki onartu zuen nazioarteko uretan nabigatzen duen itsasontzi bateko tripulatzailleek jasotako etekinak, kontzeptualki, Euskal Autonomia Erkidegoan lortu direla uler daitekeela.

6. Estatuko Administrazio Orokorraren argudio osoaren oinarria da ezin dela inola ere ulertu itsasoan egindako lanak Euskal Autonomia Erkidegoan egin direnik. Itsasoa ez delako Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldearen zati. Autonomia Estatuaren 2.2

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
13/2015	R6/2018	2018-6-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	Itsasontzi batean emandako zerbitzuengatiko PFEZren atxikipenak zein tokian sartu behar diren

artikuluak zehazten duenez, «Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoek, gaur egungo probintzien muga berberetan, osatuko dute Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren lurraldea», eta ez da une batean ere aipatzen itsas lurraldea. Eta, Konstituzio Auzitegiaren doktrinan oinarrituta onargarria bada ere autonomia-erkidegoen eskumen jakin batzuk salbuespenez lurralde-itsasoan baliatu ahal direla, hori, bere iritziz, ez da lurralde historikoen zerga-eskumenen kasua, ez dagoelako babestuta ez Autonomia Estatutuan, ez Ekonomia Itunaren Legean, ez eskumen horien beraien izaeran.

BFAk alegatzen duenez, Estatuko Administrazio Orokorraren testi hori Ekonomia eta Ogasun Ministerioiko Zergen Zuzendaritza Nagusiak 2010eko azaroaren 16ko V2465-10 kontsulta lotesleri erantzuteko hitzez hitz aldeztu zuen tesiaren aurkakoa da, eta erantzun hori bere idazkian aurkezten du. Zera zioen: «Valentziako Erkidegoaren lurraldean Alacant, Castelló eta Valentziako probintzian dauden udalerriak sartzen dira». Gainera, lurralde horri lotuta dago Valentziako Erkidegoko udalerriei dagokien lurralde-itsasoa, zeinaren gainean erkidegoak bere zerga-eskumena baliatzen duen».

Alegazio horri dagokionez, azpimarragarria da honako hau:

Auzitegi Gorena, 1998ko azaroaren 14ko epai hartan, ez zen argudio-ildo horretan sartu, nazioarteko uretan nabigatzen ari zen ontzi batean zerbitzuak ematen zituzten langileen atxikipenak Estatuko Administrazioari ala foru-administrazioari zegozkion ala ez ebazteko.

Eta Ekonomia Ituna aldatzeko abenduaren 28ko 10/2017 Legearen egileak, zerbitzuak itsasontzietan ematen dituzten langileen PFEZaren konturako atxikipenen ordainarazpen-eskumena arautzeko lotura-puntu bat lehenengo aldiz ezarriz, auzia konpondu du, 2017ko abenduaren 30etik aurrera, lurralde historikoen zerga-eskumenak itsasoan zein eremutan hedatzen diren adierazi gabe, baina administrazio eskudunen eta lantokiaren kontzeptuaren artean lotura bat ezarriz.

Argi dagoenez, gatazka hau planteatzean indarrean zegoen Ekonomia Itunaren araubidean, Auzitegi Gorenak 1998ko azaroaren 14ko epaia eman zuenean gertatzen zenez, legeria-arloko hutsunea zegoen, eta itsasontzietako langileen atxikipenak ez zitzaizkien esplizituki esleitzen ez Estatuko Administrazioari, ez foru-administrazioei; horrenbestez, hutsune hori interpretazioaren bidetik bete beharko da, Auzitegi Gorenak egin zuen bezalaxe.

Eta Auzitegi Gorenak, auzia ebazteko, bere garaian Ekonomia Itunak PFEZaren eta bere konturako atxikipenen ordainarazpen-eskumenak esleitzeari buruzko arau orokorretara jo zuen; orduan indarrean zegoen araudiaren arabera, atxikitzailearen helbidearen araua aukeratu zuen. Hala ere, hutsune hori orain ere arau orokor horietara joz bete ahal da; arau horiek, gatazka hau planteatzean indarrean

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
13/2015	R6/2018	2018-6-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	Itsasontzi batean emandako zerbitzuengatiko PFEZren atxikipenak zein tokian sartu behar diren

dagoen Itunaren idazkeran, garrantzi berezia ematen diote zerbitzuak ematen direneko lekuari eta lantokiaren kokalekuari.

Itsasontzi batean erroldatutako langileen lana, hain zuzen ere, itsasoan egiten da; hemen aztergai denerako oso esanguratsua dena, itsasontzi baten barruan egiten da, eta itsasontzi horri Espainiako lege-arloko legeriak lantokiaren kalifikazioa ematen dio, eta lurrean kokaleku bat esleitzen.

Langileen Estatutuak (urriaren 23ko 2/2105 Legegintzako Errege Dekretu bidez onetsitako testu bategina), bere aplikazio-eremua zerbitzua itsasoan itsasontzi batean barruan ematen duten langileen arlora mugatzean, beren-beregi zehazten du itsasontzia euren lantokia dela, eta lantoki hori lege ondorioetarako Espainiako Estatuaren lurraldean barruan kokatzearen inguruko auzia ebazten du, jatorri-portua non dagoen kontuan hartuta. Hala, 1.5 artikulua honela dio: «Itsasoko lan-jardueretarako, itsasontzia hartuko da lantokitzat, eta itsasontziaren jatorri-portua dagoen probintzian kokatzen dela ulertu behar da».

Urtarrilaren 26ko 84/1996 Errege Dekretuak onetsi duen Gizarte Segurantzaren enpresak inskribatzeari, eta langileen afiliazioari, altei, bajei eta datu-aldaketei buruzko erregelamendu orokorrak, irizpide berberarekin, hau xedatzen du 48.1 artikuluan: «Itsasoko Langileen Araubide Berezian, itsasontzi bakoitza lantokia izango da, eta lantoki horri emango zaio kotizazioaren kontu-kodea. Kotizazioaren kontu-kode hori enpresaburuen Erregistroan jasoko da, eta halaber, idatzoharra egingo da itsasontziaren rol edo lizentzian».

Nabigazio-jarduerarekin zerikusia duten zergak ordainarazteko eskumena duen Administrazioa zein den ezartzeko, itsasontzia lehorrean zein tokiri atxikitzen zaion kontuan hartu behar da. Esaterako, ezarpen bikoitza saihesteko, Errentaren eta Ondarearen gaineko Zerga Hitzarmenaren ELGA ereduak itsas garraioko enpresaren zuzendaritzaren egoitzaren ordeztu erabiltzen du. Ereduaren 8-3. artikulua honako hau xedatzen du: «Itsas garraioko enpresa baten edo barneko uren bidezko garraio-enpresa baten zuzendaritzaren egoitza itsasontzi baten barruan badago, itsasontzi horren jatorri-portua estatu kontratatzailean dagoela ulertuko da».

Eta abenduaren 28ko 10/2017 Legeak –esan dugunez, gatazka hau planteatu ostean eman den arren– Ekonomia Itunaren 7.Bat.a) artikuluari beste idazkera bat ematen dionez, tripulatazailea lehorreko zein lantokiri dagoen atxikita, kokaleku hori hartzea hartu du oinarri, itsasoko langileen atxikipenak ordainarazteko eskumenari dagokionez Ekonomia Itunean zegoen hutsune historikoa betetzeko.

Horregatik guztiarengatik, hauxe kontuan hartzen da: Ekonomia Itunaren 7.Bat.a) artikulua, gatazka hau planteatzean indarrean zegoen idazkeran, lanaren etekinengatiko atxikipenen ordainarazpenari buruz ezartzen zuenez, lanaren etekinengatiko atxikipenak eta konturako sarrerak, dagokien araudiaren arabera, lurraldearen zioz eskuduna den foru-aldundiak eskatuko ditu, Euskal Autonomian

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
13/2015	R6/2018	2018-6-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa/	Itsasontzi batean emandako zerbitzuengatiko PFEZren atxikipenak zein tokian sartu behar diren

egindako lan edo zerbitzuei dagozkienean. Horrenbestez, honako hau ondorioztatu ahal da: ontziak lantoki diren aldetik, Euskal Autonomia Erkidegoan kokatu beharreko ontzietan emandako lanei dagozkien atxikipenak Euskal Autonomia Erkidegoan emandako lanengatiko atxikipenak dira, eta lurraldearen zioz eskuduna den foru-aldundiari dagozkio, eta alderantziz. Bai, langile batek atxikita dagoen lantokia ez den beste batean lan egin dezake –maiz gertatzen da–, baina lantokia itsasontzi bat denean, eta lantoki deritza lana egiten den tokia delako, ez da zentzuzkoa pentsatzea lana lantoki horretaz bestelako batean egingo denik, kontrakoa froga daitekeela onartzen bada ere.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKI DU:

- 1.- Deklaratzea ezen PPASM SLren langileek Murtziako portuari atxikitako itsasontzi batean (jabetzakoa zein alokatua) egin duten lanaren etekingatiko PFEZren konturako atxikipenak ordainaraztea ZAEARI dagokiola, Murtzian (lurralde erkidea) dagoen lantoki batean emandako zerbitzuetatik eratorritako atxikipenak direlako, salbu eta lan horiek lantoki hori ez den beste batean eman direla frogatzen bada.
- 2.- Deklaratzea itsasontzi batean egindako lanaren etekinengatiko PFEZaren konturako atxikipenak ordainaraztea dagokiola itsasontzi horren jatorri-portuari dagokion administrazioari, itsasontzia bera lantoki den aldetik, salbu eta lan horiek lantoki hori ez den beste batean eman direla frogatzen bada.
- 2.- Jarduketak amaitutzat jotzea eta artxibatzea.
- 3.- Erabaki hau honako hauei jakinaraztea: Ekonomia Itunaren Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordeari, prozedura honetan parte hartu duten Administrazioei, hau da, Ogasunaren eta Administrazio Publikoen Ministerioko Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusiari eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiei.